

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuaren kultura-agenda aste honetarako

Hitzaldiak, zinea, ikastaroak eta tailerrak, kontzertuak, erakusketak eta haurrentzako aisiako jarduerak hartuko ditu

Astelehena, 2018.eko otsailak 12

Nafarroako Gobernuak jarduera berriak antolatu ditu otsailaren 12tik 18ra bitarteko asterako:

Nafarroako Liburutegiak “Del estado mental al estado de presencia” hitzaldia antolatu du astearterako, Enrique Martínez Lozanoren eskutik, eta, asteazkenerako, “Ongi etorri ipuinetara” haurrentzako tailerra, euskaraz.

Zineak, aldiz, hiru hitzordu ditu aste honetan, Nafarroako Filmotekan: “Cautivos” (Angela Pope), asteartean; “Gilda” (Charles Vidor), asteazkenean; eta “Pedro Osinagaren oroimenez”. Halaber, Baluartek “Nosferatu” filmaren proiektzioa emango du ostiralean, Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren zuzeneko musikak lagunduta.

Musikari dagokionez, San Petersburgoko Mariinskyko Antzokiko Orkestraren kontzertua programatu da astelehenerako, Baluartean; Theo Charlierren tronpeta eta pianorako “Solo de concours”, ostegunean, Iruñeko Fernando Remacha auditorioan; eta “Flautista de Hamelin” ikuskizuna, larunbat eta igandean, Baluartean.

Bestetik, Uharteko Arte Garaikideko Zentroak “Habitación: Siete - Zazpi” tailerra hartuko du ostiral, larunbat eta igandean. Erakusketa berria egongo da ikusgai: “IKIMILIKILIKLIK. JA Artzeren unibertsoa”, Jorge Oteiza Fundazio-Museoa.

[Esteka honetan](#) duzu kultur programazio osoa.



Ostiralean Baluartean proiektatuko den Nosferatu filmaren kartela.